

noaua



**AEK Etumeta
Enskaltegian,
matrikulazioa zabalik**

**Martin Larrañagari
elkarrizketa**

**Liztor asiatikoa
gustura dabil
bazter honetan**

Igande honetan, Baxurde Krosa



Ondo pasa Jaietan!

Txontxetik sagardoa jarraitu usadiva!



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

WEL MAIRIA

Talde murriztuak eta personalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak
- Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

KMDN

hizkuntzak

Congratulations

Ekiñe Zalakain Martija
Ane Aramburu Leiva

Cambridge University-ko
azterketa
gainditzeagatik **ZORIONAK**

English courses

Matrikulazio epea zabalik

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 · 943 37 14 02



noaua



Albiste iruditan

Kutsaduraren aurka, elkarretaratzea egingo da hilean behin Atxegalden

Itayak kutsaduraren aurkako elkarretaratzea deitu zuen joan den irailaren 7an. Atxegalden burutu zen mobilizazioa, N-634 errepide bazterrean. Ucin lantegiak kutsatzen jarraitzen duela eta arazoa konpontzeko neurriak hartzea eskatu nahi izan zen hitzordu honen bidez eta "Ucinek gure osasunarekin jolasten du" lemapean. Gazte asanbladatik iragarri zutenez gainera, aurrerantzean kontzentrazioa hila-bete bakoitzeko lehen ostiralero burutuko da leku berean, 20:00etan.

AIRE KALITATEAREN TXOSTENA IKUSGAI

Azken lau urteotan airearen kalitatea neurtu dute Buruntzaldeko udalek eta EHUK. Jasotako emaitzekin kaleratu duten txostena Usurbilgo Udalaren web orrialdean (usurbil.net) kontsulta daite-



Hilabeteko lehen ostiralean elkartuko dira, gazte asanbladatik iragarri dutenez.

ke. Udalak berri eman duenez, "oro har, Usurbilgo aire-kalitatea ona da. Zenbait parametro neurtu dira eta elementu ku-

tsakorrek gora egin badute ere, arruntak jo daitezkeen neurrien barruan kokatzen dira".

Laburrean

Azken saioan, 52 odol emate

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak eginiako deialdiari erantzunez, 52 herritarrek eman zuten odola, irailaren 3an anbulatorioan. Antolakuntzatik zehaztu dutenez, haietatik "berriak bi izan ditugu". Ohi bezala, "denei gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu". Hurrengo odol emate hitzordua, aldaketarik ez bada, azaroaren 5ean; 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

20 urtetik gorakoentzako dantza talde berria

Talde berri bat sortzeko lanetan dabilta herrian. Neska edo mutil, 20 urtetik gora izan eta dantzarako zaletasuna duenarentzat oharra. "Euskal dantza oinarri hartuaz, dantza berriak sortzeko asmoz talde bat sortu nahi da" Usurbilen. Taldean partehartzera animatzen denak, izena eman dezake jada telefono zenbaki honetara deituta: 657 77 94 24.

Asteazkenetako azokan postua jartzeko gonbita

Asteazkenero ospatzen den azoka indartu asmo du Udalak, eta horrekin batera, baita bertako produktuen salmenta ere. Horregatik, usurbildarrak bertan postua jartzera animatzen ditu. Aditzera eman dutenez, "postua jartzeko duenak ez du udaltasarik ordaindu beharko, eta ezinbestekoa izango da bertako produktuak soilik saltzea". Postua jartzeko, udaletxean egin behar da eskaera.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Irunkal pruzoak



Irunkal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubede.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika, publizitatea@noaqua.com.

Disinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubede, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Aloña Esnaola,

Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Itzi Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia


Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AEK Etumeta Euskaltegian, matrikulazioa irekita

Ikasturte berrirako Etumeta-AEK euskaltegian matrikulatzeko epea irekita dago jada. Hurrengo hileotarako eskaintza prest dute; goiz edo arratsaldeko klaseak, EGA prestakuntza, Mintzalagun ekimena... Klaseak urriaren leian abiatuko dituzte.

Ikasturte berrirako izen emateko ordutegi honetan gertura daiteke Kale Nagusia, 45 behean kokatua dagoen euskaltegia: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 artean, edo 18:00-20:00 artean. Deitu bestela, 607 609 379 telefono zenbakira.

Edo idatzi email bat, usurbil@aek.org helbidera.

Honako eskaintzan eman daiteke izena: goizeko taldean (astelehenetik ostegunera, astean 10 ordu, bi ordu eta erdiko klaseak), arratsaldeko taldean (astelehenetik ostegunera, astean 8 ordu, bi orduko klaseak), edo EGA prestatzeko taldean (astean hiru egun, bi ordu eta erdiko klaseak).

Euskaltegitik bertara gerturatzeko gonbita luzatzen dute, "inoiz ez da berandu" euskara ikasi edo hobetzeko, "premia badago, beti da garaia". Klaseak norbere beharretara bideratzen dituzte, horretarako gainera, ikasturte hasieran, "beti diagnosi bat egiten da".



Euskara ikasi edota EGA prestatu daiteke AEK Etumeta Euskaltegian.

Hortik aurrera, taldeak osatuta, bakoitzak bere erritmoa darama ikasturtean zehar.

DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO AUKERA

Euskara ikasten ari direnek udal dirulaguntzak jasotzeko aukera izan ohi dutela gogoratu nahi dute AEK-tik. Matrikula kostuaren %80 itzuli ohi zaie, ehuneko berean klaseetako asistentzia izan duten ikasleei.

Matrikula kostuaren %100 itzultzen zaie aldiz, langabetuei eta 12 urtetik beharako seme-alabak dituzten gurasoei. Eskerak egiteko deialdia ekainean burutu ohi du Usurbilgo Udalak.

Mintzalagun ekimenak jarraipena izango du ikasturte berrian

Mintzalagun ekimenak ere jarraituko du ikasturte honetan ere. Bertan parte hartzen ari direnen aldetik gustura dabilta, eta euskaltegitik gaineratzen dutenez, "taldea sendotu, finkatu da. Urtetik urtera jende gehiagok parte hartzen du". 40 inguru mintzalagun ditu jada, Usurbilek. Ekimenaren helburua, kalean ere euskaraz hitz egitea da. "Klaseak oso garrantzitsuak dira. Baina are gehiago, klasetik kanpo egiten dena. Euskaraz hitz egitea", adierazi digute Etumetatik. Mintzalagunen parte hartzeko gogoz denak, euskaltegi-ira izen ematera joan besterik ez du.

Euskaltegiko lana gizarteratzeko lanabes berriak, sarean

Euskaltegi barruan burutu ohi duten lana gizarteratu asmoz, blog berri bat zabaldu dute Usurbil eta Lasarte-Oriako Etumeta eta Muntteri euskaltegiek: muntteri.blogspot.com.es. Bertan, ikasleek ateratako argazkiak edota eurek prestatutako testuak zintzilikatzen dituzte. Euskaltegi barruan zein kanpoan burutzen duten jardunaren isla izan nahi du blog berriak.

Ika-Mika

Irailak 26 asteazkena, Euskal Herriak hitza eta erabakia

Sistema finantzarioaren "erreskatea" geuk ordaintzea nahi dute. Murrizketak 102.000 milioi eurota-koak izango dira, bankari emango dizkieten 100.000 milioi eurotatik oso gertu (honi gehitu behar zaizkio honezkerok eman zaizkion 146.000 milioi euroak). Hau da, 102.000 milioi euro gutxiago oinarritzko zerbitzuak bermatzeko, enplegu politikak egiteko, eredu ekonomikoan inbertitze-

ko, prestazioak bermatzeko...

Aldiz herritarrentzat, murrizketak, erreformak, pribatizazioak, zerga igoerak, EREak, soldata jaitsierak ... Usurbilen ere geroz eta gehiago dira langabezian geratzen ari direnak edo murrizketak jasan behar dituztenak.

Hau gutxi balitz lehen erreskate honen ondoren, estatuaren interbentzioa eta inposatuko dituzten neu-

rri gogorrak negoziatzen ari dira. Orain arte egin diguten iruzur sozial eta politiko handienaren aurrean gaude.

Aski da! Irailaren 26an grebarekin bat egin eta Euskal Herriko kaleak bete behar ditugu. Horretarako, irailaren 14an, ostirala, herriko frontoian herritar eta herriko erakunde guztientzat irekia izango den batzar bat gauzatuko da arratsaldeko

19etan. Bertan modu ireki eta parte hartzaile batean izango dugu aukera langabetuak, emakumeak, tabernariak, gazteak, dendariak, jubilatuek, ... eztabaidatu, alternatibetaz hitz egin eta irailaren 26ko greba orokorraren inguruan aritzeko.

Animatu bertan parte hartzera! Euskal Herriak hitza eta erabakia!

Usurbilgo LAB

Memoria lantzen

IKASTAROA GURE PAKEA ELKARTEAK ANTOLATU DU

Irailaren 20ra arte Artzabalgo bulegoan izen ematea irekia dago, Gure Pakea elkarteak antolatu duen memoria lantzeko ikastaroan. Taldeak osatzeko bilera hilaren 24rako deitu dute, 17:00etan Artzabalen. Euskaraz eskainiko den ikastaroa urriaren 5ean hasiko da. Erdarazko ikastaroa, aldiz, urriaren 1ean hasiko da.

80 URTEKOEN OMENALDIA

2012an 80 urte betetzen dituzten Gure Pakeako bazkideak omenduko dituzte, urtero moduan, urriaren 7an.

12:00etan meza nagusia ospatuko da eta 14:00etan bazkaritarako bilduko dira Atxega jatetxean.

Otordura joan nahi duten omenduen senide, lagun eta Gure Pakeako bazkide-



Irailaren 24an bilera egingo da, arratsaldeko 17:00etan Artzabalen.

ek, bazkaritarako txartelak Artzabalgo bulegoan jaso behar dituzte aldeztatik (irailaren 27a baino lehen). Prezioa: 35 euro.

Santixabeletako danborradakoen afaria

Pasa diren herriko jaietan danborradan parte hartu zutenek berriz biltzeko aukera izango dute, datorren irailaren 29an Zubietako soziedadean. Santixabeletako ekitaldi ezaguna prestatzeko lanean aritu direnek afaria antolatu dute bertan, hilabete honetako azken larunbaterako. Gaueko 21:00etarako finkatu dute biltzeko hitzordua.

Otordura joan asmo dutenek, aldeztatik eman behar dute izena, irailaren 24a baino lehen, bi telefono zenbaki hauekiko batera deituta: 676 333 777 (Marijo) edo 618 866 204 (Adela).

Udarregi Sariketarako txartelak salgai

Larunbat honetan, irailaren 15ean ospatuko da Udarregi Sariketaren bigarren edizioko lehen finalerdia.

Sei beterrano nor baino nor bertsoan ikusi eta entzun ahal izango dira, Bota Punttubak arratsaldeko 14:00etatik aurrera Agerialden antolatu duen bertso bazkarian; Xabier Zeberio, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Altzo Txiki, Jokin Matxinandiarena eta Millan Telleria.

Ekitaldirako sarrerak salgai daude Txiribogan eta Txirristran, 18 euroren truke, ostegun honetara arte.

Datorren asteburuan, Santuenean jai

Irailaren 21a noiz iritsiko zain dira Santueneko bizilagunak. Jai Batzordeak honako egitaraua prestatu du.

IRAILAK 21, OSTIRALA

17:00 Txupinazoa eta txokolatada Tragoxka tabernan.

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak Zumartxan txaranga-rekin.

19:00 Sardina jana Ibaiondoren eskutik.

21:00 Musikarien afariak: Desegin, Makulu ken eta Laket.

IRAILAK 22, LARUNBATA

11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.

13:00 Buruhandiak.

14:00 Haur bazkaria (norberak bere bazkaria ekarri, edariak eta postrea banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30- 16:00 izen-ematea).

16:00 Haurrentzako puzgarriak (puzgarri, koltxoneta, kards...)

17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.

19:00 Buruhandiak.

20:30 Herri afaria eta Bingo herrikoia (dirurik gabe, opari ezberdinekin...).

00:00 DJ Van goizaldearte.

Goizaldean, txokolatea txurroekin zahar egoitzan.

IRAILAK 23, IGANDEA

11:00 Toka txapelketa.

12:00 Hamaiketako txoznan.

14:00 Herri bertso-bazkaria.

18:00 Neska Kabaret ikuskizuna (magia, malabareak, trapezistak...).

Ondoren, buruhandiak.

19:30 Piper jana Ibaiondoren eskutik.

21:00 Jaien amaiera: traka eta suzko zezena.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 teilatuak eta fatxadak
 943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

EPA-n ere, ikasturte berria prest

Lasarte-Usurbilgo EPA-k hilabete amaierara arte irekia du, ikasturte berrirako matrikulazio epea. Hezkuntza eskaintza hau, 18 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago.

“Gure EPA zentrotik Usurbilgo herriari DBH-ko titulu ofiziala lortzeko aukera eman nahi diogu (urte batean edo bitan lor daiteke). Hauekin batera aukerako ikasgaiak ere eskaintzen ditugu: ingelesa, euskara, informatika... Baita alfabetatze klaseak (gaztelania eta euskara) atzerritar eta euskaldunentzat”. Honez gain, Unibertsitate eta Goi Zikloetarako sarbideak presta daitezke bertan, ekin-tza osagarrietan parte hartu...

Klaseak astelehenean abiatuko dituzte. Baina matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du. Bertatik, izen emateko gonbita luzaten diete herritarrei. Informazio gehiago: 943 376 443, 943 366 608.

EINEAN GURASO ESKOLA

Laboreak (Juani 943 46 50 34); Yoga (Sebas 605 72 28 25); Masajea (Sebas 605 72 28 25); Kartoizko altzariak (Mamen 626 60 50 07); Pintura (Susana 609 41 38 83); Eskulanak (Susana 609 41 38 83); Idazketa kreatiboa (Idoia 629 48 28 74); Sukaldaritza (Igor 670 41 02 73); Memoria lantzen (Saioa 687 865 658); Sabel dantza/Hip hop (Uarda 637 256 851).

Oharra: izen ematea irailaren 15era arte.

HITZ AHO

“Guraso izaten ikasiz” (Haur Eskola eta Haur Hezkuntzako gurasoentzat): saioak ostegunetan, 17:00-18:30 artean. 7 saio: urriak 4, azaroak 8, abenduak 13, urtarrilak 10, otsailak 7, martxoak 7, apirilak 11.



Klaseak astelehenean hasiko dira.

Hizlaria: Nerea Mendizabal psikopedagogo, haur masajeko orientatzailea.

“Guraso eta seme-alaben arteko elkar ulertzea” (LH 1-4ko gurasoentzat): saioak ostegunetan, 17:00-18:30 artean. 7 saio: urriak 18, azaroak 15, abenduak 20, urtarrilak 17, otsailak 14, martxoak 14, apirilak 18.

Hizlaria: Nerea Mendizabal psikopedagogo, haur masajeko orientatzailea.

“Nerabezaroa eta komunikazioa” (LH 5-6, DBHko gurasoentzat): saioak asteartetan, 17:00-18:30 artean. 7 saio: urriak 16, azaroak 20, abenduak 18, urtarrilak 15, otsailak 19, martxoak 19, apirilak 16.

Hizlaria: Joxe Amiama, psikopedagogo.

Izen ematea: hitzaho@udarregi.com. Irailaren 19tik 26ra. Kuota: 30 euro.

EMAKUMEENTZAKO AHALDUNTZE IKASTAROAK

Zoru pelbikoa indartzea; Asertibitate eta gatazken konponketarako tailerra; Ahal-duntzea eta tratu onak; Emakumeen pala ikastaroa.

Izen ematea: irailaren 17ra arte, 943 377110 / parekidetasuna@usurbil.net.

Pala ikastarorako izen ematea, Usurbilgo Kirol Patronatuan egin behar da: 943 37 24 98.

Posta bidez bozkatzeko aukera

Urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde egunean bozkatzera joan ezin duenak, aldezturik posta bidezko botoa eska dezake urriaren 11ra arte posta bulegoetan.

Ekitaldi ugari gaztetxean

Giroa bizi bizirik dago Usurbilgo Gaztetxean, joan den astean antolatutako zituzten hainbat ekimenetan izandako parte hartzeak erakusten duenez. Batzarrekin batera, mus eta pintxo txapelketak, kontzertuak edota tailerrak burutu dituzte. Hurrengo hitzorduen berri izateko: Facebook: Usurbilgo Gaztetxea. Twitter: @irauliusurbil usurbilokupatu.blogspot.com.es



Mauritania, Kalezarren

Walata elkarteak Mauritania Eguna antolatu zuen, joan den larunbatean Kalezarren. Bertaratutako zenak, Jaima baten azpian, hango kultura, janari ohiturak edota musika ezagutzeko aukera izan zuen.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

“Zaletasuna zena, ofizio bihurtu”

Martin Larrañaga, Bera Bera eskubaloitako taldeko bigarren entrenatzailea

Abuztu amaieran ezagutu genuen albistea. Martin Larrañaga herritarra Bera Bera eskubaloitako talde ezaguna entrenatzen hasi berria zela, Reyes Carrererekin batera. Berarekin hitzordua egin eta denboraldi hasiera honetaz, aurrean dituen erronka berriez jardun du urteetan Usurbil Kirol Elkarteko jokalaria eta prestatzaile izan denak, NOAUA!-rekin. Noiz eta, Bera Bera taldekoek Superkopa irabazi berri dutenean gainera.

Nola jaso zenuen, Bera Bera-ko entrenatzaile izatea proposatzen zizun albistea?

Reyesek berak deitu zidan, bere laguntzaile izateko proposatu zidan. Momentuan harrিতuta geratu nintzen, ez nuelako espero. Maiatza bukaeran izan zen. Hamar urte badaramat taldeekin eta entrenatzen. Gero selekzioa ere ematen nuen. Pixkanaka mundu honetan geroz eta sartuagoa nengoen. Egi-

“Partida bat eta gero, bideoak prestatzen aritzen naiz; hanka sartzeak, estatistikak”

ten den lanean baten batek behintzat, arreta jartzen du.

Ikasteko aukera bat bezala eskaini zidan.

Zein dira zure Bera Berako arduradunak?

Bigarren entrenatzailea naiz.

Reyesen eta bion artean kudeatzen dugu taldea; entrenamendu saioak prestatzen ditugu. Taldean lau gara berez; prestatzaile fisiko bat dago, fisio terapeuta bat, Reyes eta ni.

Lan astea nola duzue antolatua?

Partida bat eta gero, bideoak

prestatzen aritzen naiz; hanka sartzeak, estatistikak... Arratsalde bat ematen dit horrek, hiruzpalau orduko lana da. Bideoa ikusi, neure erabakiak hartu eta gero Reyesi pasatzen diot. Berak ere ikusi eta astelehenetan bilera egiten dugu. Taldeaz hitz egiten dugu, asteburuko partidaz eta horrekin kudeatzen dugu astea.



Reyes Carrererekin batera zuzentzen du Bera Bera taldea. Aurretan, Europa mailako txapelketa jokatu du.

Taldera iritsi eta segituan, Superkopa irabazi du Bera Berarekin

NOAUA! Nork esango zizun eskubaloian hasi zinen hartan, honaino ailegatuko zinenik?

Martin Larrañaga. Zeinek esango zuen Superkopa bat biziko nuenik? Azkenean Superkopa bat dut. Estatu mailako txapelketa bat lortu dut. Oso erraz, iritsi eta segituan, hila-bete batera jada titulu bat.

Reyesek txantxetan esaten zidan, Martin zer erraza den titulu bat irabaztea.

Badakizu atzetik zer lan dagoen. Ez dela hilabeteko lan bat, urtebetekoa baizik.

NOAUA! Kirol zalea zara, ofizio honek beste kirol jardueretan aritzeko denbora kenduko dizu, ezta?

Martin Larrañaga. Dena. Egia esan, ezin dut ezertara konprometitu. Egun batzuk baditut lasaiagoak,

aste tartean lasaiago ibiliko naiz, eta suposatzen dut zerbait egingo dudala. Urteroko helburua betetzea gustatuko zitzaidan, Zarauzko triatloia egitea urtero moduan.


Baina aurretan ez dakit egingo dudan, lehenengo urtea da Bera Beran. Gabonak arte nola noan ikusi nahi nuke eta gero erabakiko dut. Zerbait egiten jarraituko dut hale-re.

ERRONKA, IAZKOA HOBETZEA DA

Denboraldi hasiera nolakoa izan da?

Iraileko lehen asteburuan denboraldi ofiziala hasi genuen, Superkopa jokatu genuen. Berezia izan zen partida, azken unera arte ez baikenekien jokatu zen edo ez. Jokatu genuen eta emaitza ikusita, badi-rudi erraza izan zela. Guk ordea, iazko lanaren sari bezala ikusten dugu. Superkopa ez du edonork jolasten, bi taldek bakarrik, bi onenek. Asteburuan Porriñon egon gara (Galiza). Ligan aurretan, talde asko al-

“hartzeko zortea izan dut”



Taldea mantentzen dugunez, gustura dabilta denak, giro onean”

“Taldean bi jokalaririk olinpiko ditugu: Eli Pinedo eta Patri Elorza”.

datu dira, atzerriko geroz eta talde guxtiago dago. Denok dakigu errealitate ekonomikoa dagoela hor. Postu batzuk aldatu dira. Iaz lan txukuna egin zen eta aurten, bide berdinetik segitzea espero dugu.

Bera Bera eskubaloia taldean

usurbildar gehiago ere bada, ezta?

Gure taldean Esther Arrojeria dago. Esther taldeko ohiko dinamikan dago. Baina asteburuetan ez du gurekin jokatu.

Kanpotik begiratuta, erronkak zein diren eta Bera Bera izenak zer suposatzen duen

kontuan izanda, zuena talde oso lehiakorra eta gogorra da?

Taldea mantentzen dugunez, giroa egingo dago. Taldean giro polita sumatzen dugu, gustura dabilta denak. Jendea harritu egingo litzateke, jolasten hasten direnean, zer nolako azkartasuna duten, zenbat sakrifika-

tzen diren. Zentzu horretan, harritu egiten dute.

Azkenean ez da bakarrik esatea, profesionalak direla. Horrez gain, eguneroko lanean, norbere izaera hor dago. Inork ez die ezer oparitu, guk ez ditugu beste toki batzuetan izan ditzaketan errealitate batzuk. Aukera dute borrokatu eta gozatzeko. Borrokatuta gainera, emaitzak hor etortzen dira.

KIROL JARDUERA ULERTZEKO MODU EZBERDINAK

Zure eskubaloiko ibilbide osoa aintzakotzat hartuta, Usurbildik Bera Berara joan izanak zer aldaketa suposatu dizu?

Orain golak sartu behar dira, alde hor dago. Baliabide guttiak jarriko dizkiegu jokalariei dena ondo egin dezaten, baina orain golak sartu behar dituzte. Ondo egin behar dute. Lehen baliabideak jarri behar ziren, jokalariek ahalik eta ondo egin zezaten baina baita ere, ikasi zezaten. Bera Beran erakusten zaie gauzak egiten, baina exijentzia maila oso desberdina da. Kirol jardueran bera ulertzeko bi modu oso desberdin dira.

Zure ibilbideari begira, lan berriak zer suposatuko dizu etorkizunera begira?

Gauzak ikustea, ikastea, eskubaloian beste mundu bat ezagutzea, baita bizipen bat ere. Orain, estatu mailako liga bat ezagutuko dut, Europa mailan lehiatuko naiz, ez jokalaririk moduan, eserleku batetik, eta horrek gauza asko ematen ditu.

Orain arte zaletasunez egin dudana, ofizio bihurtzeko zortea izan da. Gehien eman didana hori da. Eta ofizio baten barruan, beti bezala, ikasten eta aurrera egiten saiatzea nahi nuke.

“Usurbilgo eskubaloia elkartearen etorkizuna ondo ikusten dut”

NOAUA! Bera Beratik nola ikusten duzu Usurbil Kirol Elkarte?

Martin Larrañaga. Usurbilen ahal dudana neurrian, laguntza emateko prest nago. Talde bat edo bestean laguntzen egongo naiz. Usurbilgo elkartearen etorkizuna ondo ikusten dut. Egin behar dena betikoa da, lana ondo egin behar da.

Lana ondo egiten den artean,

jokalaririk gehiago etorriko dira eta arrakasta, jendearengan dago.

Zenbat eta lan hobea egin, jende gehiago izango duzu. Eta nik uste dut, arrakasta hor dagoela. Gerora begira horrek emango ditu bere fruituak.

NOAUA! Bera Bera taldera egokitzea erraza egiten ari zaizu?

Martin Larrañaga. Pixkanaka neurri leku bilatzen nabil. Azkenean hilabete daramat. Geroz eta libreago, lasaiago sentitzen naiz. Oraindik ez ditut gauza asko dominatzen.

Hemen lan handia izaten dugu neurketetarako bidaia antolatzen...Hori guztia kudeatzeko orduan, gauza asko lotu behar izaten dira.

Liztor asiaticokoaren izurritea

Udaltzaingoak bakarrik dozena bat kasu atenditu behar izan ditu Usurbilen

Bolo-bolo dabil. Liztor asiaticoa eta liztor asiaticokoaren ajea. Uda honetan goia jo du izurriteak baina "okerrena ikusteko dago oraindik", ohar-tarazi digu Julian Urkiolak, Erle Eguneko antolatzaile eta Gipuzkoako Erlezain Elkarte-ko lehendakariak.

Ez du erasorako joerarik, oraingoz. Baina handia da tainaz. Arratzain bidean, Aldapatxo 11 etxeko miradorean agertu zen ekaina bukaeran liztor asiaticokoaren habi horietako bat. Etxe horretan bertan bizi dira Asad Abbas eta Koro Aliri. "Halako batean, habi bat zegoela konturatu ginen. Baina ez ginen urduri jarri", adierazi digu Asad A-



Arratzain bidean, Koro Aliri eta Asad Abbasen etxean kendu zuten habi bat. Arrastoa sumatzen da oraindik.

Julian Urkiola:
"Soilik liztor hori erakarriko duen zerbait asmatu beharra dago"

ziren eta orduan erlezainei deitzea erabaki genuen". Azkenean, Julian Urkiola erlezaina izan zen habia kentzera hurbildu zitzaie-na etxera.

tean kentzea aholkatzen omen dute: giro euritsuan bada hobe, ez dadila aktibitate asko egon une horretan eta gauez". Larunbat gauez joan zen Julian Urkiola Koro eta Asaden etxera. Oraindik habiak utzitako arrastoa ikus daiteke bikote honen etxeko balkoian.

erleak akabatzen ditu. Bera eta bere larbak elikatzekeo proiektuak behar ditu eta erleetaz baliatzen da liztor mota hau", azaldu digu Abasek. "Eta ez bada izurrite hau kontrolatzen, hemengo erlearekin akabatuko dute", gehitu du Korok.

Dena den, laster jabetu ziren etxean habia egin ziena ez zela erlea izan. Pakistandarra da Asad Abbas eta duela urte t'erdia etorri zen Usurbil aldera bizitzera. "Badakit erlea eta liztor asiaticoa bereizten. Izenak dioen bezala, Asiatic dator liztor hau. Ni bezala, niri jarraika etorri dira hona", esan digu txantxetan Asad Abasek.

Koro Alirik argitu digunez, lehenik eta behin Alkartasuna kooperatibara jo zuten. "Han erosketan batzuk egin behar genituen, eta hangoei galde egin genien. Bertako neska bat etorri zen gure etxera. Habia ikusi zuen baina eurek ezin zutela ezer egin eta munizipalei abisatu genien. Hemen azaldu

ZELULOSAZ EGINIKO HABIAK

Jabetu zirenetik habia kendu zuten arte, egun batzuk pasa ziren. "Hazten joan zen, baina ez zen guztiz handitu", adierazi digu Korok.

Pakistan aldean ikusitakoan aldean, liztor hauek "lorean zelulosaz baliatzen dira habia egiteko. Bitxia da, nik beste liztor barietate batzuk ezagutzen ditut eta lokatza erabiltzen dute habia egiteko. Kasu honetan, ordea, landareen zelulosa erabiltzen dute", zehaztu digu Asadek.

Gauza bat eta beste, bi astez izan zuten habia etxean. Baldintza egokietan kendu behar baita habia. "Egoera jakin ba-

ERLEAZ ELIKATZEN DA

Liztorra tamaina handikoa da. Baina Korok eta Asadek ez zuten beldurrik sentitu: "liztor hauen jarrera arraroa da. Oraindik ez da gizakion aurkako erasorik eman. Askok gerturatu bazara habira, euren defentsa-mekanismoa piztuko zaie. Baina animaliekin eta gizakiekin ez da oldartzen". Korok eta Asadek untxiak, ahateak eta oiloak dituzte etxeko belaze ondoan, eta ez dute inongo erasorik pairatu.

Etxeko habia kendu dieten baina kezkatuta jarraitzen dute. Erleen etorkizunarekin, hain zuzen. Asad Abbasen ustez, egoera ez da samurra: "liztor asiaticoa harraparia da,

POLINIZAZIOA, ARRISKUAN

"Hemen gero eta kasu gehiago daude. Ez diote atentzio handirik jarri oraindik. Baina ez dago soilik eztiaren produktioa kolokan. Hemengo erleak paper garrantzitsua jokatzen du polinizazioan. %79a erleei dagokie, pentsa", kexu azaldu zaigu Asad Abbas. "Nik launguntza eskaini diot Gipuzkoako Erlezain Elkarteari. Pakistango adituekin kontaktuan nago, ea liztor hauek ehizatzekeo modurik asmatzen dugun, baina beste intsektu batzuk zertan akabatu gabe. Zerbait oso zehatza asmatu behar da, liztor hauek soilik bereganatuko dituen". Hau

k gora egin du uda honetan



Kalezarren, habi hau kendu zuten duela bi aste Aizperronean (argazkia: Udaltzaingoa).

dena proiektu bat da orain-
goz, "baina instituzioek la-

guntzen ez badute, ezer gutxi
egin daiteke", adierazi digu

Asad Abbasek, bere etxean es-
kaini digun elkarrizketan.

“Okerrrena ikusteko gaude”

Hala esan digu Julian Urkiola erlezain zubietarrak. "Pikorra oraindik ez da iritsi. Urriaren azkenera arte habiak egiten jarraituko dute. Ikusiko dugu hostoakerortzen hasten direnean, zenbat habi dauden zuhaitzetan". Beste uda batzuetan baino gehiago beraz? "Dudarik gabe", erantzun digu Julianek. "Nik Ereñotzun eta Txikierridin ditut erlauntzak, eta kentzekotan nago. Ez da posible".

Konponbidea ikerkuntzan dagoela adierazi digu Julian Urkiolak, Erle Eguneke antolatzaile taldeko kidea. "Eusko Jaurilaritza jo genuen baina dirurik ez dela diote. Dena da murrizketa orain. Beste lehentasun batzuk daudela. Baina hau egunetik egunera okerrago dago. Gipuzkoako Foru Aldundia, ordea, oso ondo portatzen ari da, baina Eusko Jaurilaritzakoei tira egingo nieke belarrietatik".

Konponbidea ez da uste bezain erraza. "Espezifikoa den zerbait iker-

tzen hasi behar da. Guk tranpa txiki batzuk jartzen ditugu, baina tranpa horietan liztor asiaticoa eta liztor asiaticoa ez dena erortzen da. Eta hori ez da komeni. Soilik liztor hori erakarriko duen zerbait asmatu beharra dago. Ez bagara horrekin orain hasten, honek okerrera egingo du. Eta ez gara hasi, ba pentsa", azaldu digu Julian Urkiolak.

Neiker da horrelako ikerketek arduratzen den instituzioa. "I+D horietakoa egiteko eskatu genuen. Baina instituzioek diote ez dagoela dirurik. Eta ikerketa martxan jartzeko bitartekoak behar dira", kexu azaldu zaigu Julian Urkiola.

“EZINEZKOA DA HAU GELDITZEA”

Arazo hau gure lurraldetik haratago doa. "Kantauri isurialdean elkarre bat osatzekotan gara, indar handiago egin asmoz". Liztorraren arazo antzekoa baita Cantabrian eta Galizan. Baita Catalanun eta Por-

tugalen ere. Arazoa, bistan denez, gero eta larriagoa da ezti-egileentzat. Horien artean da Julian: "25 erlauntza ditut, eta *vespa velutina* hau joan etorrian dabil inguruan, etengabe. Ezinezkoa da hau gelditzea. Oso kezkatuta nago. Uliako erlezain bat ezagutzen dut eta uzteko dago. Irunen ere bi erlezain ezagutzen ditut. Eta hauek ere, berdin". Afera honek sektorearekin amaituko duen beldur da Julian Urkiola.

ARRISKUTSUA IZAN DAITEKE

"Istripuren bat gertatzen denean helduko diote serio gai honi", uste du Urkiolak. "Ez da erasotzailea, baina bide bazterrean edo belaze batean habi bat nahi gabe ukitzen bada, arriskutsua izan daiteke. Defentsa mekanismoa pizten bazaie, kontuz. Orain umeak eskoletan hasiko dira. Glukosa erakartzen die liztor hauei. Horrelako ziztada bat jasotzen badu ume batek, ba pentsa".

Udaltzaingoa: “Dozena bat interbentzio bideratuko genituen”

Udaltzaingoa dei ugari jaso dituzte azken boladan: "dozena bat interbentzio bideratuko genituen". Liztor hau berez erasotzailea ez izan arren, "protokolo bat jartzen da martxan. 112ra deitu behar da eta haiek suhiltzaileak jartzen dituzte martxan". Suhiltzaileak prestatu dituzte liztor habiak kentzeko. Gainera, irisgarriak ez diren tokietara iristeko gai-luak dituzte. "Suhiltzaileak gurekin jartzen dira harremanetan, habia dagoen tokira gerturatzen", esan digute Udaltzaingotik. Habia txikia denean, edo habia bestelakoa denean, "Julian Urkiolari ere deitzen diogu. Berak ikuskatzen du eta berak kentzen du".

112 ZENBAKIRA DEITU

Julian Urkiolak ere gauza bera adierazi digu: "Ihenik eta behin ez dadila inor bere kasa hasi. Ziztada oso gogorra da. Nik bat jaso dut eta nahia-go dut erlearen dozena bat ziztada, liztor asiaticoa honen bakarra baino". Inguruan habi horietako bat sumatzen badu baten batek, "112ra edo Udaltzaingora deitzeko. Eta hortik abiaraziko dute protokoloa".

"Inguru honetan, dozena bat erretiratu ditut", aitortu digu Julian Urkiolak. "Baina suhiltzaileak ere badabilta. Etxeetako teilatu azpitan agertzen ziren baina orain arbolera doa. Santuenean, pinu batean zegoen habia eta suhiltzaileak kendu behar izan zuten". Donostiatik ere deitu diote. Gehiago dira, beraz, kendu behar izan dituenak: "nik neronek 20 habi kenduko nituen".

Egoera jakin batean kendu behar da habia. Julian Urkiolak azaldu digunez, "eguraldi txarrekin bada hobeto. Eta ilunduta, aldamenean argirik ez dadila egon. Gaez egin behar da".

Lasterketa herrikoia, euska

Beste 60 udalerrirekin batera ospatuko da, irailaren 22an larunbata

Kontseiluak deituta, euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko lasterketa herrikoia antolatzen ari dira Euskal Herriko 60 udalerrri baino gehiagotan. Guztiak, egun eta ordu berdintsuan ospatuko dira; irailaren 22an, arratsaldean. Usurbilen Udala eta zenbait herri eragile prestaketa lanetan murgilduak dabilta. Antolatzaileetako bik, Etumeta AEK euskaltegiko ordezkari Olatz Urdanpilletak eta kirol edota parte hartze alorrez arduratzen den Josu Portu zinegotziak, lerroon bidez, herritarrek parte hartzea deitzen dituzte, euskara eta kirola uztartuko dituen ekimen berri honetan. Izen ematea zabalik dago.



Olatz Urdanpilleta AEK euskaltegiko ordezkaria eta Josu Portu udal zinegotzia.

Aurkeztu ezazue ekimena, zein da irailaren 22rako herritarrei egiten zaien proposamena?

Josu Portu. Kontseiluak euskararen aldeko aldarrikapen bat egiteko lasterketa herrikoia bat antolatuko du 60 udalerrri baino gehiagotan, egun berean eta ordu berdintsuan. Ez lasterketa lehiakor bat, jai giro batean egingo den festa bat.

Lasterketa izango da fisiko-ki, baina familia edo lagun arte giroan egiteko lasterketa edo festa bat.

“Euskaraz bizi nahi dut” lema izango du, helburua beraz...

J. P. Lemak berak esaten du, azkenean euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzen dugu.

Olatz Urdanpilleta. Kanpaina hau, iaz hasi zen. Lau urte-

tarako 2012-2016 kanpaina baten barruan sartua dago lasterketa. Orain arte egin diren kanpainak puntualak izan diren bezala, kasu honetan 2016 bitarteko helbu-

rua markatu da. Tarte horretan ekingiza edo gauza ezberdinak egitea pentsatu zen. Oraingon, “Euskaraz bizi nahi dut” lemapean, halako lasterketa bat egitea. Krosaren proposamena herri guztietara luzatu da. Ahal edo nahi izan duenak antolatu du.

Euskara erabiltzea bultzatu nahi da.

J. P. Ahalik eta jende gehiena korrika ikustea, euskararen aldeko aldarri bat egiten.

O. U. Euskaraz bizi nahi dugula. Lasterketa amaieran, zozketa onak egingo dira. Jendea animatu dadila.

Herri eragileekin elkarlanean burutu nahi izan duzue. Nola doaz prestaketa lanak?

J. P. Proposamena kultur zinegotziarengana heldu zen. Bera nirekin kontaktuan jarri eta ekimen honetarako kirol talde desberdinak inplikatzeko saiatu gara.

Ekimena antolatzeko ideia Kirol Patronatura eraman genuen. Bertan eskatu genuen laguntza. Kirol Patronatua bada kirol talde desberdinetan dagoen jendea eta eragile gehiagok ere parte hartu dute; futbol taldeko eta eskola kiroleko ordezkariak, AEK, Udalak, kultura teknikariak...

“Lasterketa amaieran, zozketa onak egingo dira. Jendea animatu dadila”

Andoni Errazkin
Xukin
 igeltseritza orokorra
 Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
 ☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65


 ARRANDEGIA
PELLO
 PUNTA PAX 7
 943 36 21 64
 USURBIL


 Errazkin S.L.
 igeltseritza orokorra
 943 24 01 76 eta
 649 435 470
 errazkinsl@euskalnet.net
 Oztaran auzoa 33, URNIETA

TXAPELDUN
TABERNA
 razioak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak...
 Muna lurra 2, 943 11 82 53

Aratz bizitzea aldarrikatzeko



17:00etan
hasiko da
lasterketa herrikoia;
haurrak eta helduak
batera irtengo
dira

Haurrek ere har dezakete parte (argazkia iazko Baxurde Krosekoa da).

Izena ematea zabalik dago. Lasterketa amaierako zozketan parte hartzeko apuntatzea beharrezkoa da?

O. U. Zozketan parte hartzeko, diploma bat erosi behar da. Sariren bat egokitzeko diploma hori behar da.

J. P. Diploma horretan zozketan parte hartzeko zenbakia agertzen da. Egun berean, izena emateko gunea egongo da Kiroldegian. Hor bi aukera daude; kamisetarekin edo gabe izena eman daiteke eta bi kasuetan diploma jasoko du apuntatzen denak. Zozketan parte hartzeko ezinbestekoa da izen ematea.

Euskara aldarri duen lasterketa bat, zergatik da beharrezkoa gaur egun?

O. U. Garrantzitsua da. Denok sentitu dugu, euskaraz hitz eginez norabait joan eta erantzuna erdaraz jasotzea. Bartzuetan ez dakielako, beste bartzuetan nahi ez duelako. Hori saihesteko da. Oso garrantzitsua da euskara ikastea, oinarritzua da noski, ez badakigu ezin dugulako hitz egin. Baina behin ikasi dugunean erabili behar da eta erabilera hori bultzatzeko, aldarrikatzeko da ekintza hau.

Garrantzitsua da parte hartzea, denok kutsatzea espiritu horrekin. Helburua ez da krosean parte hartzea bakarrik noski, erabilera hori bultzatzea, euskara erabiltzea.

Eta erabiltzeko aukera izatea?

O. U. Hori kutsatu egiten da. Ohitzen bazara hitz egiten duzu, hitz egiten baduzu ondokoa hitz egiten du, kutsakorra izaten da. Beti dago premia, herri euskaldunagoak edo eraldunagoak izan daitezke, baina beti sumatzen ditugu halako premiak. Oso garrantzitsua da parte hartzea, gainera festa giroan izango da, eta animatzeko! Ondo pasako dugu!

J. P. Udaletik herritar oro gonbidatzen dugu lasterketan parte hartzera.

Oharra: bizikletan edo patinetean ere osatu daiteke ibilbidea. Arazorik ez izateko, bizikletaz edo patinetean egin nahi duenak atzetik joan beharko du.

HITZORDUA

IRAILAK 22 LARUNBATA

- Irteera/helmuga: Oiardo kiroldegia. 4 km inguru.
- Ordua: 17:00h.

IZEN-EMATEA

INTERNETEN

- euskarazbizinahidut.org web orrialdean.

POTXOENEAN

- Aldez aurretik, goizez.

KIROLDEGIAN

- Egunean bertan.

PREZIOAK

HAURRAK

- "Euskaraz bizi nahi dut" kamisetarekin 7 eurotan. 2 eurotan kamisetarik gabe.

HELDUAK

- "Euskaraz bizi nahi dut" kamisetarekin 10 eurotan. 5 eurotan kamisetarik gabe.

ZOKKETAK

- Izena eman behar da, lasterketan atera eta ondoren egingo den zozketarako zenbaki bat eskuratzeko.

ANTOLATZAILEAK

- Kontseilua, Etumeta, Itaya, Udarregi Ilkastola, Baxurde Kroseko lagunak, NOAUA!, Udala.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Josue
Igeltseritza:
 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Enkarterrietan barrena

Andatza Mendi Elkartekoek Balgerri, Burgeño eta Koltzako gailurrak egin zituzten

Abuztuko etenaldia-
ren ostean, hileroko
irteera burutu zuten
Andatza Mendizale
Elkartekoek, irailaren 2an.
Oraingoan, Enkarterrietan izan
dira. Hauxe, euren web orrial-
dean zintzilikatu duten kroni-
ka: “Ordunteko mendietako
goizaldeko lanbroa garbitu ze-
nean, Menako bailara eta Or-
dunteko urtegia agertu ziren.
Eguraldi freskoarekin, gainez
gain Balgerri, Burgeño eta Koli-
tza gailurrak egin genituen.
Koltzako ermitatik Pandozale-
sera jaitsi eta bazkaldu ondo-
ren Balmasedako erdi aroko hi-
ria eta zubi ospetsua bisitatu
genituen, Usurbilgo bidea har-
tu aurretik”.



Irailaren 2an ibili ziren Enkarterrietako mendi inguruetan.

Futbol Eskolan izen emateko garaia

Usurbil FT-k LH 3, 4
eta 5 mailetako
ikasleei zuzendua
dagoen eskola abia-
razi du. Izen emateko aukera
egongo da irailaren 19an eta
21ean. Arratsalde, 17:30-
19:30 artean, Harane futbol
zelaiko bulegoan.

Usurbil FT-tik berri eman
dutenez, “entrenamentuak be-
ti bezala, ostiraletan izango
dira 17:00tatik 18:30tara (al-
datu eta dutxatzeko denbora
barne). 3-4 eta 5. mailako
ikasleak apuntatu daitezke
(2002-2003-2004). Urteko kuo-



Futbol Eskolak arrakasta handia izan du beste edizio batzuetan.

ta 150 eurokoa izango da (or-
dainta modua izen emateko
garaian azalduko dugu). Go-
goratu, beti bezala, Eskola Ki-
rolean izen-ematea derrigo-

rrizkoa dela ekintza honetan
parte hartzeko. Are gehiago,
talde kirolean parte hartzera
derrigortuta daude umeak le-
gearen arabera”.

Usurbil FT-ren bazkide kanpaina

Denboraldi berrirako bazkide-
ta kanpaina abian duela berri eman
dute Usurbil FT-tik. 20 euroko
balioa du bazkideztaketa “Hara-
neko tabernan nahiz Rural
Kutxan egin daiteke”.

Lagunarteko eskubaloï partida

Larunbatean, kiroldegian:
Kadete maila, mutilak. 18.00h.
Usurbil K.E. - Urnietako K.E.

ANTXON QUIROGA ITURRALDE

- Fransesean diplomatua, Hizkuntz Eskola Ofizialean.
- Diplômé de l'Alliance Française au DALF niveau supérieur C2, français langue étrangère
- Diplomatua UNED-en, frantsesa atzerriko hizkuntzako irakaskuntzako aditu gisa.
- Internet eta Skype bidezko klaseak (1 eta 2 mailak)
- Especialitateak: hastapenak/hasiberriak, hobekuntza, elkarizketa, hizkuntz adierazpenak, negozioetarako frantsesa, hizkuntza frantsesaren egitura.

a.quiroga@ya.com 608180307

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Zuen
publizitatea
hemen

© 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Igandean, Baxurde Krosa

Oiardo Kiroldegian hasi eta bukatuko da aurtengo lasterketa; goizeko 11:00etan abiatuko da

Bosgarren ediziora heldu da Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak antolatutako Baxurde Krosa. Igande honetan, irailaren 16an ospatuko da kirol proba herrikoia. Aldez aurretik izen emateak zabalik jarraitzen du, aurtengoan berrikuntzekin; apuntatzeko kirolprobak.com web orriari klikatu beharko baita. Adi izen emateko sistemari; txip horia dutenek, 10 euro ordaindu beharko dituzte. Txip zuria eskuratu behar dutenek, 12 euro. Eta lasterketa egunean (9:00-10:30 artean izena emanda), 15 euroren truke parte hartu ahal izango da Baxurde Krosean. Baxurde Txikitik apunta-

tzea proba egunerako ez uztea eskatzen dute.

“Ahal duen guztiari aurrez apuntatzeko deia egiten diogu, egunean bertan guri lan asko aurrezten digulako”, adierazi dute. Oiardo Kiroldegian ere eman liteke izena, baina ostegun honetara arte, irailaren 13ra arte.

Beste aldaketa bat. Aurtengoan, probaren irteera eta helmuga gunea aldatu dute antolatzaileek. Mikel Laboa plazan burutzen ari diren lanak tarteko, Oiardo Kiroldegian hasi eta bukatuko da V. Baxurde Krosa. Proba hasteko ordua, hori bai, betikoa; goizeko 11:00etan.

Ibilbidea ere aurreko urtee-



Iazkoan, euria ez zen arazo izan korrikalari hauentzat.

tako bera; 10,75 kilometroko luzeera izango du eta Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edota Kalezar zeharkatuko ditu. Proba antolatzen lagundu duten guztiari esker ona helarazi nahi diete Baxurde Txikitik.

IRISASI BTT, OHARRA

Mailot manga motza akatsekin etorri da. Irailaren 17 eta 18an, Andatza elkarteak egotzian jasoko dituzte (19:30-20:15). “Fabrikatzaileari itzuli eta berriak egingo dizkigute”.

Iñaki Errastik eta Kaikuk irabazi dute Kontxako Bandera

Igandean ez zen giro Sestaon (Bizkaia), ospakizun festa nagusitu zen bertan, Kaikuk aurtengo Kontxako Bandera irabazi osten. Arraunlarien artean, pozik baita aginagar bat; Iñaki Errasti. Emakumezkoen ligan, Getaria-Tolosa taldekoak hirugarren sailkatu ziren. Tartean zen Argizka Balentziaga.

AGINAGAKO ESTROPADAK, GOIZAGO

Kontxako Bandera ospatuta, estropaden denboraldia azken txanpan murgildu da jada. Hainbat arraunlarik orde, hitzordu berezi bat dute hilabete honen amaieran; Aginagako estropadak. Oraingoan, goizago. Hilaren 29an ospatuko dira Oriako uretan.



Iñaki Errasti, Aginagako lagunekin batera (argazkia: Eider Makazaga).

JARDUERA ESKAINTZA ZABALA, KIROLDEGIAN

Usurbilgo Udal Kirol Patronatuak prest du 2012-2013 ikasturterako eskaintza: aerobik, mantentze gimnasia, yoga, sabel dantza, pilates, 3. adina, spinning, eta igerilekuan, ikastarook: haurtxoak (3-24

hilabete), uretara moldatzea (2005-2009 artean jaiotakoentzat), ur ludoteka (2005-2009 artean jaiotakoentzat), igeriketa hastapena eta hobe-kuntza helduentzat.

Izena emateko, Oiardo Kiroldegira hurbildu beharra dago.

Tximeletaren ikasturte berria

Soinketa erritmikoko eta hip hop ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaintzen dute. "Anima zaitetz eta etorri gurekin ondo pasatzera!", luzatu dute gonbita Tximeletakoek. 943 11 63 42 edo info@clubtximeleta.com

Aginagako Pala Txapelketa

Irailak 13 osteguna, 19:00h
Xabier Errasti-Iban Arruti
Josu Arruti-Imanol Esnaola

Unai Loidi-Jon Olaizola
Xabier Murua-Josu Errekondo

Irailak 20 osteguna, 19:00h
Xabier Errasti-M. Galarraga
Igor Alkorta-Iban Arruti

Unai Loidi-Eneko Arregi
Enrike Huizi-Jon Olaizola

ETXEBIZITZA**Salgai**

Landetan (Vieux Boucau) apartamentu bat (4 pertsona) alokatzen da, Boucanier erresidenzian. Aste osoa, astebukaerak, nahiz egun askeak. 653 014518

11 urteko pisu bat salgai Aginagan, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, 2 balkoi, garajea (30 m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera eta argitasun haundikoa. 677471648.

Pisu batsalgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua alokatzen da Kaxkoan, Txaramunto kalean: 3 gela, sukaldea, bi komun eta sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656 75 70 73.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 679 366 415.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462

3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.

Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxoan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

Etxea salgai Kalezarren bista

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!ko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

ederrekin. 2 solairukoa, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berriua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.

Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurrerarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530

792.

Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.

Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainu-gela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berriua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriua. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (guetan deitu).

90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.

Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.

Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.

Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Citroen Gran C4 Picasso salgai 2008. urtekoa, 78000km eta oso zaindua. (7 plaza). 695810048

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.

Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat egokia, Atxegalden.

628 063 871.

Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.

38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan eskaintzak

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko,

Zorion-agurrak

Nora eta Odei, udan lau eta urte bat bete dituzue.
ZORIONAK!!!

Jaiotzak

Alex Alkorta Errasti abuztuak 17

Irati Lizaso Lanberri abuztuak 23

Ekhi Martin Gonzalez abuztuak 26

Unax Errasti Torcida irailak 02

morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrereko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia.

663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko.

662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrek emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.

Neska bat eskaintzen da, helduak

edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.

LHko haurrentzat klase partikularrek emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).

BESTELAKOAK

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio onean. Telefono mugikorra:

637 974 994 Itziar

Kotxe kapota bat dohainik. Norbaitek nahiko balu deitu telefono honetara. Tel. 657 714 355.

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.

Etxean egindako ardi gazta lantzen da. 687 348 223

Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaile eta iraila. "Punta Lago" kanpian. 634 443 909.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.

Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Akordeoa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkonzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. Telefono zenbakia: 690784113.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udalzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
KZgunea	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Popular Español	943 370 411
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	BBVA	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Telefonica	1004
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak irailaren 13tik 23ra

Osteguna 13	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Ostirala 14	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 15	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Igandea 16	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Astelehena 17	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Asteartea 18	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Asteazkena 19	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

Osteguna 20	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala 21	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Larunbata 22	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea 23	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe. Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10. atzekoaldea
943 372 795

Agenda Iraila

13 osteguna

■ "Lainopean", Iñaki Agirresaroberen diaporama emanaldia, 19:30ean Sutegin.

15 larunbata

■ "Zoozoom" haurrentzat kale antzerkia, 18:00etan frontoian.

16 igandea

■ V. Baxurde Krosa. 11:30etan kiroldegitik abiatuta.

Makina bat animalia, "ZooZoom" antzezlanean

Ikusleak antzele bilakatuko dira larunbat honetan, Markeliñe antzerki taldearen obra honetan. Haurrak izango dira interakzioz beteriko "ZooZoom" antzezlaneko protagonistak. Makina bat animalia agertuko dira zoo bitxi honetan, eta haiek eramango dute istorioaren haria. Elementu xumeak hartuta, izaki ikusgarriak sortu dituzte, guztiak eskuz eginak.

Dibertsioak eta ondo pasatzeak garrantzi handia du "ZooZoom" antzezlanean. Mezu pedagogikoaren aldean, jolasak du protagonismoa. Familiarentzako obra da, barre eragiteko helburuarekin egin.

Aurreko astean, talde honek berak



Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan hasiko da Markeliñe taldearen saioa.

"Terapia?" obra eskaini zuen frontoian. Larunbat honetan, familia osoarentzat egoki den antzezlan eskainiko dute, "ZooZoom", 18:00etan hasita frontoian.

IV. Topa Eszenikak jarraipena izango du irailaren 28ko asteburuan.

Datozenak

Datorren astean, trukea Txokoalden

Irailaren 23an igandea, goizeko 11:00etatik 14:00etara truke azoka Txokoalden. Goizean trukea egiteko aukera izango da eta ondoren bazkaria.

Kantu-jirako entseguak

Kantu jiran ibiltzen diren lagunak entseatzeko hasiko dira laister. Irailaren 25erako egin dute lehen deia. Arratsaldeko 18:30ean batuko dira, Udarregi ikastolan.

"Ispilua" antzezlan

Antzezlanen hilabetea izango da honakoa. IV Topa Eszenikari esker, puntako obrak ikus ahal izango ditugu. Ion Martinez eta Saioa Royo aktoreek, esate baterako, "Ispilua" obra taularatuko dute irailaren 28an ostirala, 20:15ean, Sutegin. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai.



Santuenea Kultur elkarteko eskaintza

Ikastaro hauek prestatu dituzte Santuenean: Yoga; Meditazioa; Zoriontasuna landuz. Izena emateko telefono zenbaki hauetara deitu behar da 670 027 731 / 637 413 691 (Juanjo Lertxundi).

Baratze ikastaroa larunbat honetan hasiko da

Usurbiltzenek deituta, larunbat honetan goizeko 10:00etan hasiko da. Izena emateko hona jo: baratzeikastaroa@gmail.com

Ogi ikastaroa irailaren 22an hasiko da. Izena emateko: 608 566 683 (Beñat).

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BENTĀ
TĀBERNĀ
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

iza Agirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ikasitza
eta landu

euskara bizia

aek

usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia, 45 behea.
20170 USURBIL

607 609 379 usurbil@aek.org
www.muntteri.blogspot.com.es



Eskolak



On line



Barnetegiak



Mintza
praktika



Titulu
homologatuak



Normalizazio
planak

aek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

eman izena


www.aek.org
902 362 294



Irailean eta Urrian...

...irabazi **EROSKETA-BALEAK** Hurbilagorekin!

IRAILEAN eta URRIAN zure erosketa Hurbilago txartelarekin ordainduta **5, 10, 20 eta 50 €**ko erosketa-baleak irabaz ditzakezu.



Hurbilago txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio bezero sarituari bere erosketa-saria. Erosketa-sariaren trukea, Hurbilagoko edozein establezimendutan egin ahal izango da eta egindako erosketa berri baten zenbatekotik deskontatuko da.



Usurbilgo Udala



INDUSTRIA, BERPKUNTZA, MERKATUA ETA TURISMO SAILA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACION, COMERCIO Y TURISMO

